



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2016ko EKAINAREN 28an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2016ko ekainaren 28an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Onintza Gorostidi Murua
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Xabier Mugika Letamendia

Bere ezin etorria azaltzen du: Koldobika Jauregi Zinkunegi eta Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - 2016ko maiatzaren 31an egindako ohiko bilkuraren akta.
 - 2016ko maiatzaren 31an egindako ez ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Udal langileen 2016urterako opor egutegiak.**
- 5. Beste batzuk.**
- 6. Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2016ko maiatzaren 31ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2016ko maiatzaren 31ko ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

17/2016 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 10ekoa, Beleburupe guraso elkarteak eginiko eskaera onartzea, ebazten duena.

18/2016 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 10ekoa, Beleburupe guraso elkarteak eginiko eskaera onartzea, ebazten duena.

19/2016 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 17koa, A.A.A. jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena.

20/2016 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 20koa, M.M.A. jaunari pinuak garraiatzeko herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

21/2016 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 20koa, Alkizako udaleko 2016 urteko lehenengo sei hilabeteko zabor tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

TOLOMENDI	152,50
EXCLUSIVAS MANERO	756,25
TINDU MARGOAK	30,35
ETXEGINTZAKO MATERIALAK	187,28
BELAKO	30,00
IAMETZA	2.662,00
IZADI LABORATEGIA	152,94
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	913,96
CASER ASEGURROAK	240,29
CASER ASEGURROAK	895,73
COPY-TEC	1,59
MOVISTAR FIJO	75,49
MOVISTAR FIJO	58,40



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

EXTIN FIRE	92,20
ARGITU	140,48
CORREOS	4,98
EBA ERKIZIA	1.402,84
CALPARSORO INDUSTRIAL	12,40
BERRI LANTEGIA	519,20
AUDAX	165,31
AUDAX	390,88
RECAMBIOS IBARRA	15,33
EUSKALTEL	63,55
MOVISTAR FIJO	80,76
GOIKOETXEA ALBISU	78,73
AUDAX	58,69
BIDATEK	471,90
RECAMBIOS IBARRA	3,73

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **9.657,76** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

UDAL LANGILEEN 2016 URTERAKO OPOR EGUTEGIEN ONESPENA, HALA BADA

Xabier Mugica Letamendia arratsaldeko 20.35 orduetan batzar honetara gerturatzen da.

Ikusirik Udal langileak aurkeztu dutela 2016 urterako lan eta opor egutegiak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udal langileak aurkezturiko 2016 urterako opor egutegiaren onespena.

BOSTGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

5.1. ALKIZAKO ONDARE KULTURAL ETA NATURALA BABESTEKO EKINTZA IZENENKO PROIEKTUA BURUTZEKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA

Ikusirik 2016ko maiatzaren 18ko agindua, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, non Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdia egiten duen 2016 ekitaldirako.

Ikusirik Alkizako Udalak asmoa duela aipaturiko diru-laguntza honen babesean, "Alkizako ondare kultural eta naturala babesteko ekintza" izeneko proiektua aurrera eramatea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- "Alkizako ondare kultural eta naturala babesteko ekintza" izeneko proiektua aurrera eramateko onespena ematea.

BIGARRENA.- "Alkizako ondare kultural eta naturala babesteko ekintza" izeneko proiektua burutzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2016ko maiatzaren 18ko agindua, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, non Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdia egiten duen 2016 ekitaldirako.

5.2 ALKIZAKO HERRI OSTATUAN BIOMASA BIDEZKO BEROKUNTZA SISTEMAMA IZENENKO PROIEKTUA BURUTZEKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA

Ikusirik 2016ko maiatzaren 18ko agindua, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, non Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdia egiten duen 2016 ekitaldirako.

Ikusirik Alkizako Udalak asmoa duela aipaturiko diru-laguntza honen babesean, "Alkizako Herri Ostatuan biomasa bidezko berokuntza sistema" izeneko proiektua aurrera eramatea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA.- “Alkizako Herri Ostatuan biomasa bidezko berokuntza sistema” izeneko proiektua aurrera eramateko onespena ematea.

BIGARRENA.- “Alkizako Herri Ostatuan biomasa bidezko berokuntza sistema” izeneko proiektua burutzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2016ko maiatzaren 18ko agindua, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, non Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdia egiten duen 2016 ekitaldirako.

5.3. UDAL LANGILEAREN (GARBITZAILEA) OPOR EGUTEGIA BETETZEKO 2015EKO URRIAREN 20-an PRESTATURIKO LAN POLTSA ERABILTZEKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Udal langileak (garbitzaileak) oporrak egin behar dituela uztailaren 4tik 31ra bitartean, ordezkari bat hartu behar delarik egunean 2 orduko kontratuarekin, udaletxearen lokalak eta kale garbiketara egiteko. 2015eko urriaren 20an egin zen lan poltsa erabiliko delarik ordezkari hori egiteko.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2015eko urriaren 20an egin zen lan poltsa erabiltzea udal langilearen (garbitzailearen) opor egunen ordezkari bat egiteko, hau da, uztailaren 4tik 31ra bitartean. Egunean 2 orduko lanaldia izango duelarik.

5.4. HERRI LANGILEARI LAGUNDUKO DION HERRITAR BAT KONTRATATZEKO DEIALDIAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, udal partearen eta batez ere herritarren festa aurretik, herri langileak egiteko lan asko egoten dela.

Ikusirik, beharrezkoa ikusten dela pertsona bat kontratatzea, herritar langileari bere lanetan laguntzeko, festa antolatzea eta beste hainbat lan egiteko.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Bando bidez, herri langileari bere lanetan lagunduko dion pertsona bat kontratatzeko iragarkia argitaratzea. Egungo dituen lanak, belarrak moztea,



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

herriko jaien prestaketan laguntzea eta beharrezkoak diren beste hainbat lan izango dira. Kontratua bi hilabetekoa eta lanaldi erdikoa izango da. Ezinbestekoa izango da, LANBIDE-n apuntatua egotea. Izena emateko epea uztailaren 13an bukatuko delarik.

ZAZPIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

6.1. DIRU LAGUNTZA LERRO BEREZI ETA BERBERA BATEN ALDARRIKAPENA

Ondoren Diru laguntza lerro berezi eta berbera baten aldarrikapenaren idatzia aurkezten da, non ondorengoa dioen:

“Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapen Sistema (Gaztematika) inplementatzen hasi ginenean helburu nagusienetako bat zen Gipuzkoako haur, nerabe eta gazte guztiei bizitzaz disfrutatzeko eta jendartean modu egokian integratzeko aukera berdinak ematea. Horrek esan nahi du lurralde osoan – herri handi zein txikitan bizi– haur eta gazteek zerbitzu eta sustapen eskaintza berdintsuak izango dituztela.

Helburu nagusi horrekin lanean hasi ginen, eta 1000 biztanle baino gutxiago dituzten herrien arteko lan talde bat osatu genuen haur eta gazteen sustapena bultzatzeko. Bi erakundeen (udalak eta aldundia) sustapen arloetatik bideratutako baliabideak nahiko ez zirela ikusirik, elkarlanerako lagunak bilatzen hasi ginen. Horrela jaio zen Aldundiko Berdintasun arloarekin batera garatutako “Txikiak Berdinbidean” proiektua. Egitasmo horren bidez Herri txikietan bi arloen arteko (sustapena eta berdintasuna) elkarlanerako eremuak eta bideak aztertu, eta abian jarri genituen. Proiektu horretatik ateratako ondorio nagusietako bat da herri txikietan haur, nerabe eta gazteen sustapena lantzeko premia dagoela, eta horretarako baliabide gehiago behar direla.

Errealitate hori ikusita, eta landa eremuko haur eta gazteak herri horien etorkizuna direla kontutan harturik, herri txikietan haur eta gazteentzako kalitatezko zerbitzuak eskaintzea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Herrietan bertan zerbitzuak eskaini beharko genituzke gazteak herrietatik alde ez egiteko. Zerbitzu horien bidez ere landuko genuke haur eta gazteen artean herritartasun aktiboa, herri bizitza berpizteko oinarri izango dena.

*Horrekin guztiarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiak legegintzaldirako diseinatutako plan estrategikoko helburuetako bat izanik “**Landa ingurunean hiri ingurunearen antzeko zerbitzuak (integralak) eta gizarte ongizatea**”*



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

lortzea, biztanleria eusteaz gain, landa eremuak erakargarri eta lehiakor egiteko, taldea osatzen dugun herriek Aldundiari eskatzen diogu gure errealitatera egokitutako lan harremana bultzatzea. Horretarako bide interesgarri bat izan daiteke Aldundiko sail ezberdinetatik herri txikietara zuzentzen diren laguntzak aztertu eta bateratzeko aukeren inguruko hausnarketa egitea.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, “Diru laguntza lerro berezi eta berbera baten aldarrikapenaren” idatziari atxikimendua ematea onesten da.

6.2. TOLOSALDEA OSASUNGINTZA EREDUAZ MOZIOAREN ONESPENA, HALA BADA

Ondoren Tolosaldea Osasungintza ereduaz mozioa aurkezten da, non ondorengoak dioen:

“Tolosaldea osasungintza ereduaz

2011tik Euko Jaurlaritzak lankidetzak hitzarmen bat eduki du Inviza ospitale pribatuarekin (Asuncion klinika aurrerantzean) Tolosaldeko ospitale erreferentziala izateko. Nahiz eta Jaurlaritzatik informazio gehiegi ez helarazi, behin baino gehiagotan salatu dugu osasun arreta izaten ari den gainbehera etengabea.

Honetaz gain, bost urte luze hautean, ezagunak izan dira Asuncion Klinikak historikoki duen lau milioi euroko zorra ez ordaintzeko egindako trikimailu mordoa. Hemen ere argi eta garbi utzi dugu gure osasun arreta erdigunean egon behar duela eta ez irabazi ekonomikoen menpe.

2017ko azaroan Jaurlaritzak Asuncion klinikarekin duen hitzarmena bertan behera geratzen da. Momentu historiko baten aurrean gaude. Tolosaldeko herritar eta eragileok sekulako aukera dugu eskualdean nahi dugun osasun arreta erabakitzeko. Urte luzez eskatu dugu eskualdeko eragilez osatutako mahai bat osaketa eta Jaurlaritzak behin eta berriz ateak itxi dizkio aukera honi.

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak Tolosaldeko herritar eta eragileon bizkar, aldebakartasunez osasun sistema pribatua erdigunean duen sistema bat inposatu nahi digu berriz ere. Hasieratik gure ezezkoa adierazi genion aukera honi eta orain, bost urte geroago egoera hau luzatu nahiko dute Lakuatik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Horregatik, ondoko eskaera hau egin nahi dio Alkizako udalbatzak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari:

1.- Mahai gainean jar ditzala bost urtez indarrean egon den konbenioaren balorazio tekniko zein ekonomikoa xehetasun osoz balorazio osatu bat egiteko aukera izateko.

2.- Ireki dezala prozesu partehartzaille bat eskualdeko udal eta herri eragileekin denon artean aurtengo azarotik aurrera jaso nahi dugun osasun arreta denon artean erabakitzeke.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, “Tolosaldea Osasungintza ereduaz mozioa” bere osotasunean onesten da.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.45 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.